

Noaia!!

www.noaia.com



Ingemarreko langileak,
greban

Iñaki Errasti Kaikuko arraunlariak

Gertu du garaipena




**IBAI ONDO ELKARTEAK SANESTEBAN
JAIETAKO PLATER TIRAKETAN
LAGUNDU ZUTEN GUZTIEI
ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIE**

- Aialde Berri Sagardotegia
- Aizpurua autobusak
- Alamandegia Jatetxea
- Alberi
- Amestoi Txakolinak
- Andazpe Elkartea
- Arratzain Mendiluze Sagardoa
- Artzabal Supermerkatua DIA
- Astiazaran-Iruin Sagardotegia
- Auto Guria
- Berasategi Kafeak
- Bruño Mariskoak
- Osa Harategia
- Egiola Sagardotegia
- Eibartrans garraioak
- Eizmendi
- Errolzpe Elkartea
- Etxebeste Jatetxea
- Euro Label
- Fagor etxetresnak
- D'Galar Ruiz Ardoak
- Amara Plaza Hotela
- Ingemar
- Irrintzi
- Juantxo Burdindegia
- Labe-goxo Okindegia
- Manterola Gasolindegia
- Manterola Mariskoak
- Maykar Jatetxea
- Peio Arraindegia
- Saltxipi Jatetxea
- San Estebango Jai Batzordea
- Urdaintzi Igeltseritza
- Urtinea Lorategia
- Usurbil Autoak
- Usurbilgo Udala
- Zubillaga
- Zumeta Jatetxea

ESKERRIK ASKO!

I CODE
BY **IKKS**



MAHUKA
arropa denda

etxebeste 3 ☎ 943 361 106

KMDN
hizkuntzak

English courses

- Talde txikiak
- Gazte eta helduentzako ikastaroak
- Cambridgeko azterketak prestatzeko

Matrikulazio epea zabalik
Ortutegia 16:00h -20:00h

informa zaitez!

Zubiaurrenea 6 • Tlf 943 371 402

Erraustegia, energia iturri?

San Markos-eko Partzuergoaren Hiri Hondakinen Plan Integralean aipatzen den antzeko erraustegi batek, **urteko 30.000Mw** ekoitziko lituzke. Hau da, Donostiako hiriak neguko **8 egunetan kontsumitzen duena** baino ez.

Osasun-tekniko batzordea



Albisteak iruditan !!

Ingemarreko langileak, grebara

Enpresako zuzendaritzak Ingemarreko hongoi langile kaleratu ditu uda hone-tan, modu arbitrarioan enpresa komiteak salatu duenez. Gainera, langileen ordezkari-ek jakinarazi dutenez, langileak mehatxatu dituzte, lan taldea berregituratzen jarraituko dutela adieraziz.

Azken egunotan langileek elkarretaratzek-ak eta batzarrak burutu dituzte enpresa ata-rian. Pasa den larunbatean, mobilizazioen egutegia onartu zuten; greba egitea irailaren 8an. Baita 15, 17, 22, 23 eta 24an ere. Irailaren 25etik aurrera, muga gabeko gre-bari ekiteko asmoa dute langileek.

Enpresa komiteak helarazi duen prentsa oharrean jakinarazten denez, bizi duten gatazkari konponbidea bilatzeko boronda-tea agertzen dio zuzendaritza taldeari.



IGARO DEN ASTEAN LANGILEAK EUREN SENITARTEKOEKIN, ENPRESA ATARIAN.

Noaia!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaia.com - www.noaia.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaia.com

Aldizkari koordinaatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaia.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaia.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaia.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

PINTORE IKASTAROA, HASTEAREN 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN 6. OR.

SANTUENENKO FESTAK, BEGIBISTAN 9. OR.

DONOSTIAKO BANDERA, PIL-PILEAN 10. OR.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**BENTA
 TABERNA**
**Oilasko erreak
 Ogitaratekoak**
 San Ignacio 1, behea
 USURBIL 943 36 93 05

**ERRAZKIN
 Igeltseritza S.L.**
 Tel.: 649 435 470
 Faxa: 943 372 679
 K./ Nagusia 47. Behea A.
 20170 USURBIL

**LATAILLADE
 ITURGINTZA**
 GASA
 BEROKUNTZA
 MANTENIMENDUA ETA
 KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
 Arizatitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021



IMANOL UBEDA

Matraka bera

Duela sei urte, margolari baten obra erasotua izan zen, hirugarrenez. Oso minduta gertatutakoarekin, “ekimen argi bat eta konpromisoa” eskatu zien Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari; Euskadin bizi den faszismotik zaindu dezaten bere obra.

Agustin Ibarrolaren Oma basoaz ari naiz hizketan. Uztaila bukaeran, Usurbilen “margotua” izan zen muralaren egilea banintz, ni ere oso minduta gertatutakoarekin, konpromisoa eskatuko nieke instituzioei; nire obra errespetatu zedin.

Asper-asper eginda nagoelako, batzuen zein besteen matraka gero eta jasangaitzagoa zaidalako edo, galdu dut hemengo “gatazkaz” hausnartu eta idazteko behar den freskotasuna. Horregatik jo dut hemerotekara argi bila. Hortik tiraka, abiapuntu gisa egin dudana konparazio hori deigarria iruditu zait. Izan ere, ez didazue esango herri honetan bizi dugun egoera surrealista ez denik.

Hitz hori etorri zitzaidan burura, hain zuzen, uztailaren 30eko espektakuluaren aurrean.

Ez nekien Barne Saila kultur ondareaz ere arduratzen zenik. Are gutxiago, muralen zaintzaz espezialduriko langilerik zuenik ere. Akaso ez daude oraindik oso trebatuak. Edo akaso ez zuten oso argi izango eta, badaezpada, ez dakit zenbat uniformedunen babesean etorri ziren. Hain legezkoa, bidezkoa eta “osasungarria” izanda, zertarako poliziaren babesa. Nire artean.

Sikiera pareta osoa zuriz margotu izan balute... Baina utzi duten moduan utzi eta gero, harro esan dezakete XXI. mendeko euskal surrealismo berriaren aitzindariak izan direla. Nahiz eta aitzindari izateko, herriko paisaia aspalditik integratuta zegoen muralaren kontura egin duten.

Arazo larriagoak bizi baditugu ere, antzeko kontuekin joan zaigu uda.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Hainbat argibide

Idatzi honen helburua ez da eztabaida-ekin jarraitzea, ezta herrian inongo liskarrik sortzea ere. Gure asmoa joan den uztailaren 24ko alean Jon Gallego, Jotak, NOAUA!ko atal honetan idatzitakoak herrian sortu dituen zenbait galderari erantzuna eman eta horretarako NOAUA!ren bidea aukeratu dugu.

1.- Nola hartzen dira klubeko erabakiak? Normalki hilean behin zuzendaritzaren bilera bat izaten dugu, hilabete horretan gertatutakoak aztertu eta hurrengo hilabetean egin beharreko lanak banatzeko. Gai bereziren bat edo erabaki azkarren bat hartu behar denean, ezohiko bilera bat deitzen dugu eta bertan gaia aztertzen da.

2.- Zein irizpide jarraitzen dira erabakiak hartzeko? Zuzendaritzako partaide bakoitzak gaiari buruz duen informazioa gainontzekoei azaldu eta beharrezkoa bada, entrenatzailei deitzen zaie informazio gehiago izateko. Behin bilerara joan diren guztiek duten informazioa eta iritzia eman ondoren, partaide denen artean jarraitu beharreko pausoak adosten dira. Ez bada denen arteko adostasunik lortzen, bozketa egin eta gehiengo osoz hartzen

direlarik erabakiak.

3.- Nola da posible zuzendaritzak Jota bezalako pertsona bat klubetik bidaltzea? Zuzendaritzak ez du inor Usurbil KE-tik bidali. Gazte mailako taldea Granollers-era joan edo ez erabaki behar genuen bileraren aurretik, Jotak bere iritzia idatziz eman zuen gaiari buruz. “Gazte hauek ez badira Granollersera joaten datorren denboraldian nire kirol jarduera alda dezaket, baina, hau mehatxu bezala ez hartu”. Bilera horretan zuzendaritzak luze eta zabal eztabaidatu ondoren, talde hori ez joateko erabakia hartu zuen. Hortik egun batzuetara, berriz Jotarekin hitz egin ondoren, “entrenatzaile modura neure zikloa amaitu da, ez daukat inongo motibaziorik lan honetan jarraitzeko eta hurrengo denboraldian ez dut entrenatzaile moduan jarraituko”. Hau jakitean lanean hasi ginen 2009-2010 denboraldirako entrenatzaile bila, baina Jotari bere erabakia pentsatzeko eta ezin al genuen berarekin kontatu beste entrenatzaileirik ez bagenuen topatzen. Hori pentsatuko zuela eta horrela geratu zen gauza. Hurrengo hilabeteke bileran zuzendaritza elkartu eta talde guztiak osa-

tzeko adina entrenatzaile genituela pentsatuz, Jotari aurtengo denboraldian bera gabe moldatuko ginela esan genion.

Amaitu aurretik, Jotari eskerrak emateko aprobetxatu nahi dugu, Usurbil KE-ren eta herriko hainbat gazteren alde egin duen lan bikainagatik. Badakigu ze talde giro ona eta zein gustura eduki dituen jokalaria, guraso eta zuzendaritza. Espero dugu hau urte beteko atsedena besterik ez izatea, hau da; datorren denboraldian berriz indarberrituta gurekin lanean izango den itzaropena dugu.

Bestalde, irailaren 26an goizeko 11:00etan 2009-2010 denboraldirako ditugun egitasmoen berri eman nahi genuke. Bertan talde bakoitzaren eta zuzendaritzaren funtzionamendua guraso eta herriko jendeari azalduz. Gu ezagutzeko aukera ona izango duzue eta zuen iritzien berri izatea ere ongi etorriko zaigu. Gustatuko litzaiguke ahalik eta parte hartze handiena izatea. Beraz, jokalaria, guraso eta herriko denak gonbidatuta zaudete bilera honetara.

Usurbil Kirol Elkarteak zuzendaritza

Organoaren teklatura osatzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Salvatore Parrokiak

Hamar mila euroko laguntza jasoko du Salvatore Parrokiak bertan kokatua dagoen organoaren hirugarren teklatura osatzeko, Udalarekin sinatu berri duen hitzarmenari esker. Modu horretan borobilduko da azken aldian aipatu musika instrumentuak izan duen zaharberritze prozesua.

Usurbilgo organoa Euskal Herrian soinu aukera handiena eskaintzen dutenen artean dago.

Zaharberritze prozesua amaitu berritan, urte amaierara arte luzatuko diren ehungarren urtemugari lotutako

ekitaldiak burutzen hasiak dira.

Irailaren 30ean, organoari buruzko hitzaldia

Irailaren 30ean, elizako organoaren mendeurrenako ekitaldien barruan, Usurbilgo Salvatore elizako Cavaillé-Coll/Mutin organoari buruzko hitzaldia egingo da elizan bertan.

Historia eta zahar berritzearen inguruko xehetasunak azalduko dira hitzaldian eta Esteban Elizondo, Denis Lacorre, Lontxo Oiartzabal eta Joan Luis Atxega arituko dira hizlari lanetan. Sarrera doan izango da eta 20:00etan hasiko da Salvatore



SANTXABELETAN EGIN ZEN ORGANOAREN INAUGURAZIOA BAINA DRAINDIK ZAHAR-BERRITZE LANAK BUKATZEKO DAUDE.

Elizan. Salvatore Parrokia, Udalak eta Foru Aldundiak elkarrekin antolatuta dituzte urteurren ekitaldiak.

Urriaren 1ean hasiko da pintore ikastaroa

Urriaren 1ean hasiko da pintore ikastaroa. Udalak antolatu duen ikastaro honek INEM eta Europako Gizarte Fondoaren laguntza jaso du. Irailaren 18ra arte, izena emateko aukera dago. Ikastaroa, aldiz, urriaren 1ean hasiko da.

Lanbide honetan prestakuntzarik jaso ez duten eta ikasteko gogoz diren, emakumezko nahiz gizonezko langabetuei zuzendua dago ikastaroa. Lanean direnek ere badute izena emateko aukera, beti ere ikaslegoaren %40a gainditzen ez badute.

Ikastaroa amaitu eta gero, sektoreko



AGINAGAKO PINTURA TAILERREAN EGINGO DA PINTORE IKASTAROA.

enpresetan praktikak egin ahal izango dituzte. Informazioa jaso edo eskabideen aurkezpena egiteko, Usurbilgo Udaletxean (943 371 951).

Mikel Laboa eskultura lehiaketa

Mikel Laboa Plazan eskultura jartzeko lehiaketa deitu du Udalak. Irabazleak 10.000 euroko saria jasoko du. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek bi gutun-azal aurkeztu behar dituzte. Gutun-azal itxi batean eskaera orria eta norberari buruzko datuak jarri behar dira. Beste batean eskulturari buruzko txosten eta gehienez ere 50x50x50 cm maketa.

Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da. Oinarriak, hala ere, www.usurbil.net webgunean daude ikusgai.

Otar-Goxo
Elizkargariak
Zubiaurrenca, nº2
T 943 36 55 81
20170 Usurbil

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Oindegia - Gozategia
LABE-GOXO

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Urteetako lana oroitzuz



Ongi etorriak bueltan zaretenoi eta oraindik oporrak geratzen zaizkizuenoi gozatu, gauza onak azkar amaitzen baitira. Oporrak amaituko dira gure arteko gehienontzat eta pozik, orain indar berrituta hementxe hasi gara energia berriekin.

Nola utzi ba aipatu gabe urteetan fin fin haragia zerbitzatzen aritu zaigun gure *txarkutero* famatua "Txapartegi". Iritsi zaio bizitzaz gozatzeko garaia eta horrela izan dadila gainera. Inpresioa ematen du orain bertatik pasa eta dena hutsa ikustean.

Berezia izan da beti Kale Nagusiko txoko hori, txikia zen baina aldi berean xarma berezia zuen tokiak. Txikitako oroimenak etortzen zitzaizkidan aldamenetik pasa orduko, izan ere ia mostradorera iritsi ezin eta aldamenean zuen eserlekura igo beharra izaten nuen amak bidalita enkarguren bat egitera joaten nintzenean.

Urteetan aritu zaigu gure herriko bere txoko horretatik baserriarren haragi fresko freskoa zerbitzatzen eta eskerrak ematekoa benetan herriari eman dion bultzadagatik. Izan ere, dagoen lehiakortasunarekin ez da batere erraza aurrera egitea. Alde batetik, merkataritza-zentroen eragina dugu



aldamen-aldamenean eta bestetik gure elikadura ohiturak aldatu egin dira eta krisia dela eta ez dela! Garai onean etorri zaiola erretiratzeko garaia, beraz, zorion bikoitza! Orain bizimodu berriari aurre egiteko hainbat okupazio aurkituko dituelakoan nago! Bejondeizula Euxebio! Zure denbora aprobetxatuko duzula iruditzen zait.

Mila esker horrenbeste urteetan gure herri xumeari zerbitzatzen aritzeagatik! Ondo-ondo segi dezazula urte askoan. Ondo izan eta hurrengora arte.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Sanestebanak gogoan



Konturatzera pasa zaizkigu oporrak! Irailean sartu gara eta gehienok sartu gara eguneroko errutinan. Abuztuan herrian inor gutxi ikusi bada ere, hasi gara denok mar-txan eta kalean ere antzeman da hori.

Laneko lehenengo egunetako ezinei aurre egin nahian, Sanestebanak etortzen zaizkit gogora. Abuztuaren 1, 2, 3 eta 4an ospatu genituen auzoko festak. Aurten egunak nahiko aldrebes egokitu zaizkigu, 1a larunbata izanik, "parrandarako" egun bakarra gelditu baitzaigu.

Bertaratu den jendea gustora antzeman dugu eta antolatzailerak ere zapore goxoarekin gelditu garela iruditzen zait. Ondo joan dira festak eta ederki pasatu dugu gainera!

Orain egunerokoari eutsi behar diogu eta abenduan Sanesteban Txikiren antolaketarekin hasi beharko dugu eta konturatzera laster izango gara berriz Sanestebanak 2010 antolatzen!

Eta ahaztu gabe, eskerrikasko festetara gerturatu eta ekin-tzetan parte hartu, antolaketa lanetan lagundu eta bestelakotan lagundu diguzuen auzokide eta herritar guztioi!

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Atxegaldeko Jaiak Bizirik!

Abuztuaren 28, 29 eta 30ean Atxegaldeko jaiak ospatu genituen auzoan eta esan beharra daukagu oso ondo aterata zirela! Eskerrikasko bertaratu zineten guztioi, denon artean festa bikainak izatea lortu baitugu.



Jai Batzordearen aldetik, aurreko hilabeteetan jaien prestakuntzan egindako esfortzua erabat saritua ikusi dugu zuen denon partehartzearekin eta beraz, Atxegaldeko gazteon partetik mila esker bihotz-bihotzez. Urtetik urtera festak ilusio eta



gogo gehiagorekin prestatzen ditugu eta gure auzoari hiru egunetan zehar bizitasun eta jai-giro hori ematea da helburua. Haur, gazte zein helduek ederki pasatzeko aukera izan zuten hiru egunetan zehar. Ea ba urteak aurrera doazen bezala horrelako festa bikainak egiten jarraitzen dugun. Gora Atxegaldeko festak!

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Geroz eta gutxiago falta da



Dagoeneko irailan sartuak garen honetan, opor usaina amaitzen ari da. Askok honezkeroko oporrak amaituak izango dituzue, ikasleen oporrak ere amaitzeaz daude... errutinara itzultzen hasteko garaia dugu berriro ere!!! Batzuk gogoz, besteak nagikeriaz... egunerokotasunerara itzuli beharra ez da askotan xamurra izaten.

Hala ere, aginagatarrok badugu halako ilusio txiki bat. Izan ere, irailaren atarian, San Praixku jaietarako geroz eta gutxiago falta baitzaigu. Azken gauzak lotzea soilik falta zaigu egitaraua burutzeko. Aurten ere bi asteburu izango ditugu eta egitarauan zenbait berrikuntza izango ditugu. Beti ere, jaiak hobetze alde, noski!

Esan behar, jaiak aurrera eramatea ez dela gauza erraza izaten. Gauza asko egoten da egiteko, ez soilik antolakuntza, egitaraua egitea da errezena, gero egitarau hori aurrera eramatea ordea beste gauza bat izaten da. Jai Batzordean ibiltzen garenontzat, badakigu iraila ze hilabetea izaten den. Ustez dena eginda dago, baina beti dago zerbait zintzilik. Hau dela eta, hemendik aginagatar guztiei, zahar eta gazte, 2009ko San Praixku jaietan parte hartzera gonbidatzen zaituztet. Urte osoan antolakuntza lanetan aritzen direnei laguntzea...



Azken batean, guztiok gure aldetik pixka bat jarritz gero, herritarren arteko harremana indartzeaz gain, giroa ere asko hobetuko bailitzateke. Festak ez dira gazteen gauza soilik, festak ez du adinik, hau dela eta, ea denok esfortzu txiki bat egiten dugun San Praixku jaien alde.

Amaitzeko, San Praixkuak alde batera utzita, Iñaki Errasti zoriondu nahiko nuke txoko honetatik, nahiz eta, bandera oraindik eskuetan ez izan, igandean Kaikuk egindako estropada itzela izan baitzen. Hemendik zorionak eta zortea opa nahi nioke! Ea, hurrengo igandean Kontxako bandera astintzeko aukera izaten duzun!

KALEZAR

MADDI GALBETE

Buelta



Joan zaie udara, batzuei: hasi dira ikastolan, hasi dira lanean, hasi dira unibertsitatean (gutxi batzuk)... Baina zorioneko batzuk oraindik oporretan gaude, hilabete luze bat daukagu aurretik, gainerakoek lana egiten duten bitartean gozatzeko. Unibertsitateko bizitzak hori dauka.

Hala ere hasi dira egunak moztzen eta gauak luzatzen; hasi da haize freskoa etortzen eta epela pixkanaka aldentzen; hasi gara duela hilabete beharrezkoa ez zitzaigun txaketatxo ateratzen; hasi dira eskolari buruzko iragarkiak; hasi dira lehen negarrak; pasa da udarako azkenetako parranda markatzen duen estropade-tako lehenengo asteburua...

Baten batzuek gustora hartzen dute errutina, udaran desmadratuta ibili ondoren; beste batzuei gehiago kostatzen zaie; gutxi batzuk ez dira sekula ohitzen errutinara eta beti ordulari gabe ibili nahi lukete...

Animo guztiei buelta gogor honetan, eta lasai egon, gabonetako oporrak uste baino lehenago etorriko zaizkigu eta!!

Eta oraindik oporretan zaudetenak, gozatu, ondo pasa, eta ez eman inbidia handiegirik jada hasi direnei, guri ere gutxi falta zaigu eta!

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

Aurtengoa ere badoa

Bukatu da bukatu da, bukatu da bukatu da... horrelaxe dio kantak eta baita horrela izan ere.

Aurtengo uda ere pasa zaigu gu konturatzerako. Eguzkia goiz hasi da sartzen, festa gehienak bukatu dira eta horren ondoren beti bezala ikastola.

NOAUAN ere oporrak eduki ditugu, batzuk beste batzuk baino gehiago eduki dituzten arren. Ekainean oporrak hartu ikastolan, baina NOAUAN lanean beste auzoko kronika egile batzuk oporretan zeuden bitartean eta gainera ez dira izan motzak, nahiko luzeak izan dira. Lau- bost kronika segidan egin ondoren oporretara joan behar eta NOAUAN ere oporrak hartu.

Irailan denak bezala lanera, bai ikastolan, bai kirolean baita herriko aldizkarirako ere. Eta orain ere hemen nago idazten, azkenaldian bezala. Ba ea aurten fitxaketa berriak egiten ditugun Zubieta aldean behintzat.

Eta animo denei kurtso berriarekin berriro ere konturatzerako hemen izango dira eta oporrak!



Aisialdiko begirale ikastaroa antolatu dute Buruntzaldeko udalek

Ugaritzen aritu eta euskara bultzatzea helburu duten aisialdi ekintzak antolatu edota gauzatzeko begiraleak behar izaten dira. Baina lanean jarduteko, aldezturik zeregin horretarako ikasi egin behar izaten da. Horretaz jabetuta, Buruntzaldeko udalen arteko elkarlana-ri esker, iraila amaieran 18 urtetik gorako gazteei zuzenduta, aisialdiko begirale izateko prestakuntza ikastaroa antolatu da. Izen emateko epea hilaren 18an itxi da.

Etorkizunean gaztetzoen aisialdi munduan lan egin nahi duenari, interesgarria suertatuko zaio Buruntzaldeko udalek, Urtxintxa eskolarekin batera elkarlanean datozen lau hiletarako antolatu duten ikastaroa. Helburua, geroz eta pisu handiagoa duten haur zein gaztetzoei zuzendutako aisialdiko ekintzen alorrean begirale gisa jardun nahiko luketenak prestatzea litzateke. Matrikulatzeko bi baldintza bete behar dira soilik; euskalduna izateaz gain, 18 urte beteta izatea.

Animazio teknikak, aisialdiko oinarriak...

Hiru ardatzetan oinarritzen da, datoren lauhilekoan ikasleek begirale izateko ikastaroan burutuko duten lanketa. Aisialdiko esperientzia desberdinak hizpide izango dituzte; hala nola, haur, eskola edo gazte txokoak, edota natur eskolak. Bestalde, eguneroko jardunean baliagarriak izango zaizkien animazio tekniken berri izateko ere aukera aproposa eskaintzen die Buruntzaldeko udalek antolatutako prestakuntza saioak; taellerak, antzerkia, musika, jolasak... Aisialdi oinarriei buruz ere jardungo dute. Hala, psikologia, pedagogia, soziolinguistika edota antolakuntza alorrei lotutako edukien lanketa egingo dute.

Herriko gazteek, matrikulazioa merkeago

Ikasle kopuru mugatuak izena eman ahal izango du ikastaroan eta matrikula datoren arabera osatuko da taldea. Horregatik, interesdunei ahal bezain las-



18 URTETIK GORAKOEI ZUZENDUTA
DAGO IKASTAROA.

ter matrikulatzea aholkatzen zaie, Udaleko Euskara Zerbitzura joanda edo bertara deituta, 943 371 999 telefono zenbakira. Ikastaroaren prezio orokorra, 560 eurokoa da. Aldiz, Buruntzaldeko udalek emandako diru-laguntzei esker, Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo gazteei beherapena aplikatuko zaie. Ikastaroa, 360 euroren truke burutu ahal izango dute. Ordainketak Kutxako honako kontu korrante zenbakian egin beharko dira: 2101 0095 56 0002032985. Diru sarrera egin izanaren agiria, ikaslearen argazki bat, nortasun agiriaren fotokopia eta matrikula-orria beteta aurkeztu beharko dira, izena ematerakoan.

Homologatutako titulua

Teoria eta praktika uztartuko ditu ikastaroak. Saioak hil honen amaieran hasi eta lau hilabetez luzatuko dira, ostiral eta larunbatetan, Andoainen. Tartean, parte hartzaileek lau aste buru aterpetxe batean igaroko dituzte. Berrehun orduko ikastaroa, ikasleak aurten edo beranduenez datorren ikasturtean burututako praktika saioekin eta aurkeztu beharko duen memoriarekin osatuko da. Lan guztiak eginda, amaieran Eusko Jaurlaritzak homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale" titulua jasoko du gazteak.

Aginagako frontoian, Porrotx pailazoa eta bere laguna Ximon

Ostiral honetan, Porrotx pailazoa Aginagako frontoian ari-tuko da. Aldamenean ez da Pirritx izango. Ezta Marimotots ere. Baina Ximon lagunarekin batera, bihurrikeri ugari egingo ditu. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da Porrotx eta Ximonen saioa. Antxomolantxa elkarteak antolatu du pailazo hauen saioa. Sarrera, doan.



PORROTXEN SAIOA ARRATSALDEKO
18:00ETAN HASIKO DA.

Katekesia, martxan

Katekesian izen emateko egunak zehaztu dira: irailak 15 asteartea eta irailak 16 asteazkena, Parrokiako bulegoan. Ordutegia, 10:00etatik 11:30era edo 17:00etatik 18:30era.

Bestetik, Horacio Argarate apaizak Usurbil utzi eta Arrasaterako bidea hartuko du iraila bukaeran. Hori dela eta, **larunbat honetakoa meza berezia** izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Dantza Taldearen irteera

Larunbat honetan, irailak 12, kurtsoari amaiera emateko irteera egingo dute Dantza Taldekoek. Autobusa goizeko 9.00etan aterako da kiroldegi aurretik eta 18.30ak aldera itzuliko dira toki berdinerara. Goiz partean igerilekura joango dira, beraz, haurrek uretarako beharrezko gauzak hartu behar dituzte.

Datorren astean, jai-giroa Santuenean

Kontzertuak, Josune Aranburu eta DJ Larra, herri bazkaria, sardina jana, dantzariak, haur jolasak, moto eta txirrindu erakustaldia... Iraileko hirugarren asteburuan, jai-giroak badu bere egoitza herrian; Santuenean, hain zuzen. Astebete baino ez da geratzen, auzoko Jai Batzordeko kideek prestatu duten ekitaldiez gozatzen hasteko.

Asteburu bete hitzordu dakar aurtengo Santueneko jaietako egitarauak. Ikusi, entzun eta dastatu, nahi adina hitzordu, nahi adina aitzakia egongo da irailaren 18tik 20ra, aipatu auzora gerturatzeko.



JAIEN HASIERA IRAGARRIKO DU TXUPINAZOAK. ONDOREN, TXOKOLATEA BANATUKO DUTE.

Santueneko jaiak 2009

Irailak 18, ostirala

17:00 Txupinazoa eta txokolatada, jubilatuen tabernaren aurrealdean.
18:30 Buruhandiak.
19:00 Sardin-jana txarangarekin.
21:00 Musikarien afariak.
Ogitartekoak egongo dira karpan afaldu nahi duenarentzat.
00:00 Kontzertuak, Sexty Sexers, I Can't Explain. Dantzaldia, Trikihots.
Ondoren, gazte jokoak; txerri harrapaketa, globo gerra.

Irailak 19, larunbata

11:00-14:00 Haur jolasak haur parkean.
14:00 Haur bazkaria. Bakoitzak bere bazkaria eraman. Edaria eta postrea banatuko dira.
16:00 Mus txapelketa. Izen ematea: 15:30-16:00 artean.
16:00-19:00 Haur jolasak.
17:30 Txokolatada Tragoxka aurrean.
19:00 Buruhandiak.
20:30 Kantu afaria, Josunerekin.
00:00 DJ Larra goizaldera arte.

Irailak 20, igandea

10:30 Baxurde Txikik antolatutako krossa pasako da auzotik. 12:00 Toka. 12:30 Herriko dantzariak plazan.
Ondoren, hamaiketako jubilatuen tabernaren aurrealdean, jubilatutako auzoko kultur elkarteak antolatuta.
14:00 Herri bazkaria, txaranga.
17:00 Benito Rosen moto eta txirrinda erakustaldia. Ondoren, buruhandiak.
19:30 Piper dastaketa.
21:00 Traka eta suzko zezena.

Jende asko eta giro ederra Atxegaldeko festetan

Jaien hasieran eguraldiak askorik lagundu ez zuen arren, asteburuak aurrera egin ahala Atxegaldeko festa giroak hobera eta herritarren parte hartzeak gorantz egin zuen. Eta nola gainera, larunbat gaueko afalostean adibidez. Hain zuzen, asteburu bete ekitaldi ospatu zen abuztuaren 28tik 30era. Ezin ahaztu, txupinazo ekitaldian Alkorta harategikoei egin zitzaizen omenaldi hunkigarria, Hotzikara eta Mendeku Itxua herriko taldeen kontzertuak, haur jokoe-tan izan zen parte hartze handia... Eta traka entzutetsuak, datorren urtera arte festei emandako amaiera. Argazki gehiago noaua.com webguneko Argazkitegian ikusgai.



JAI BATZORDEAK ALKORTA HARATEGIKOAK OMENDU ZITUEN, JAIEN HASIERAN.

Iñaki Errasti, Kaiku taldeko arraunlaria

“Castro eta gure artean egongo da Bandera”

Donostiako Bandera eskuratzeko lehia, aspaldiko estuena izango da. Iñaki Errastiren Kaiku taldeak du abantaila, baina San Pedrokekin ari den Alex Udabek adierazi digunez, “irabazi nahi duenak, gogor aritu beharko du igande honetan”. Estropada garrantzitsuenaren bezperan, bi usurbildarren adierazpenak jaso ditugu.

NOAUA! Bost segundoko aldea Castrori. Hamarrekoa San Pedrori. Espero al zenuten?

Iñaki Errasti. Lehenak izateko aukera baguen eta asmo horrekin atera ginen (aurreko igandean). Zentzu horretan, oso positiboa izan zen. Gehiago indartu gaitu. Estropada gogorra zen, aurkari gogorak genituen. Gainera, atzetik hasi ginen baina gutxinaka nagusituz joan ginen. Lehenak izatea ez genuela espero esango banu, gezurra esango nizuke.

N. Castro eta zuen artean argituko da aurtengo Bandera. Dena den, San Pedro ez dago oso urruti, ezta?

I. E. Denboraldia nola joan den ikusita, Castro eta gure artean dagoela esango nuke. San Pedro ere hor dago, itxaropenak izateko arrazoirik badu, baina bi talde ditu aurretik. Gauzak oso ondo egin behar dituzte eta aurretik dauden bi taldeek (Kaiku eta Castro) huts egin. Ez nuke baztertuko San Pedro, ezta Hondarribia ere. Baina azken hauek zailagoa dute oraindik.

N. Emaitei begira, badirudi Liga alde batera utzi eta txapelketak eta Kontxa izan direla hasiera hasieratik zuen helburuak.

I. E. Bai, hala izan da. Ligan, atzeko postuetatik alde egin eta sailkapenean erdialdean kokatu, lasai ibiltzeko; hori izan da gure helburua.

Talde honekin (Kontxan aritu zena- rekin) entrenamendu asko egin ditugu



“AHALIK ETA ITSASO ONENA EGOTEA”, HORI DA IÑAKI ERRASTIK NAHI DUENA.

eta txapelketak prestatu ditugu batez ere. Talde honekin zazpi estropadetatik zazpi irabazi ditugu. Tartean, Mutrikuko Bandera eta Bizkaia, Euskadi eta Espainiako txapelketak. Kontxako klasifikatorioa irabazi genuen eta baita pasa den igandeko estropada ere. Honek segurantzia handia eman digu.

KORTA, LASAI...

“Oso lasai ikusten dut Korta eta hori seinale ona da. Gauzak ondo doazela esan nahi du horrek”

N. Itsasoa ez da protagonista izan, oraingoz. Emaitei erreparatu, komeni zaizue itsasoa bare egotea.

I. E. Ahal den itsaso onena egotea. Gauzak nola joan diren ikusita, eskatzen hasita, ahal den onena izan dadila. Segurtasun gehiago ematen digu.

N. Iaz, Kaikurekin hasi zinenean, atzera pauso modukoa eman zenuela pentsa zitekeen, EKT liga utziz eta KAE-1eko talde batekin fitxatuz. Baina emaitzei erreparatu, bete-beteen asmatu zenuela esan daiteke.

I. E. Kaikun hiru urterako proiektu batean partehartzeko aukera eskaini

zidaten. Nahiz eta iaz KAE-1 ligan hasi, ez zitzaidan gogorra egin. EKT ligara igo ginen eta aurtengo egindakoa- ri begira, badirudi taldearen helburuak urtebetez aurreratu direla.

N. Nola dago Korta egun hauetan, nerbioak jota?

I. E. Nerbio handiko gizona da; gu ere bai. Dena den, aurtengo oso lasai ikusten dut Korta. Gurekiko jarrera oso ona da. Eta hori seinale ona da. Gauzak ondo doazela esan nahi du horrek.

N. Maiz bizi izan dituzu antzeko egunak. Nolakoak dira azken igande aurreko orduak?

I. E. Burua inportantea da egun hauetan. Beste taldeetan erreparatu gabe, guk gurea egin behar dugu. Zentzu horretan, taldea oso ondo ikusten dut.

N. Aurtengo inoiz baino gertuago al duzu Kontxako bandera?

I. E. 2001ean, ehunetako batzuen- gatik galdu genuen, azken igandean itsasoa asko aldatu zen. 2005ean, bi segundo ateratzen genizkion Castrori baina tenporala altxa eta galdu egin genuen. Aurtengo, konfiantzarekin gaude. Baina helmugara iritsi arte, ezin ezer esan. Suerte txarrik ez izatea, hori eskatuko nuke.

Alex Udabe, San Pedro taldeko arraunlaria

“Bandera oraindik ez du inork irabazi”

NOAUA! Kaiku eta Castro dira faborito nagusiak. Baina zuek ere hor zaudete. Gertu ala urrun ikusten dituzu aurreneko bi taldeak?

Alex Udabe. Nahi baino urrutiago daude. Tarte handia da. Talde handiak dira eta zaila da biek kale egitea. Baina guk ere tarte hori bera ateratzea daukagu datorren igandean.

Ohorezko tanda irabazten badugu, Banderatik ez gara oso urruti ibiliko. Dena ematera aterako gara, hori argi dugu. Baina tarte handia da.



ALEX UDABE, EZKERREKO ILARAN TIRAKA ARI DEN LEHENA.

N. Ikusi behar eguraldia nolakoa den, itsasoa nola portatzen den.

A. U. Aukeran, itsaso mugitua nahiago. Itsaso garbian hobeto ibiltzen gara baina Banderari begira, ondo legoite itsaso mugitua izatea.

N. Aste berezia da hauxe. Lanean jai eskatu al duzue?

A. U. Ez, ez. Lanean eta entrena-tzen arituko gara, beti bezala. Burua arintzeko ere ondo etorriko zaigu betiko martxan aritzea.

N. Kontxan, onenen parean zaudete. Denboraldia ere ona izan da.

Pozik egongo zarete, ezta?

A. U. Bai, noski. Gurea talde-lana da. Azken lau urteotan mutil berberak aritu gara, bloke oso ona dugu. Fisikoki oso ondo prestatu gara eta azken negua, bereziki, oso gogorra izan da. Castro bezalako talde handi bati bitan irabazi diogu eta, beste askotan ere, hortzak erakutsi dizkiegu. Izena eta dirua ez da dena arraun munduan.

N. Beraz, datorren urtean ere itsa-soan ikusiko zaitugu.

A. U. Ez pentsa, datorren urtean

uzteko asmoa dut. Sei urtetan ibili naiz arraunean. Gaztea naiz oraindik, beste afizio batzuk ere baditut... Ez dakit, ez dut betiko utziko arrauna, baina urtebeteko atsedena hartzeko asmoa dut.

N. Bandera igual ez baina ohorezko txanda irabaztea sikiera, gauza ederra izango zen.

A. U. Kristorena! Gauza bat esango dizut: Bandera oraindik ez du inork irabazi. Kontxa irabazi nahi duenak arraun egin beharko du. Gogor, gainera.

Igande honetan ere, tren zerbitzu bereziak

ZUMAIA	ZARAUZ	S.PELAIO	AIA-ORIO	USURBIL	ERREKALDE	AÑORGA	LUGARITZ	DONOSTIA AMARA
9:10	9:20	9:21	9:27	9:36	9:43	9:46	9:48	9:51
9:30	9:38	9:39	9:45	9:54	10:01	10:04	10:06	10:09
10:10	10:20	10:21	10:27	10:36	10:43	10:46	10:48	10:51
10:30	10:38	10:39	10:45	10:54	11:01	11:04	11:06	11:09
18:30	18:38	18:39	18:45	18:54	19:01	19:04	19:06	19:09
19:30	19:38	19:39	19:45	19:54	20:01	20:04	20:06	20:09

DONOSTIA AMARA	LUGARITZ	AÑORGA	ERREKALDE	USURBIL	AIA-ORIO	S.PELAIO	ZARAUZ	ZUMAIA
17:17	17:19	17:22	17:25	17:33	17:44	17:49	17:50	17:59
18:17	18:19	18:22	18:25	18:33	18:44	18:49	18:50	18:59
19:17	19:19	19:22	19:25	19:33	19:44	19:49	19:50	19:59

Topa Eszenikan, asko ikusi eta asko ikasi

Parte hartzearekin gustura, ikas-
teko aukera polita eta giro ede-
rra. Hitz horiekin laburbiltzen
dute antolatzaileek asteburuan ospatu
eta amaitu berri den Topa Eszenikaren
lehen edizioa. Irailaren 3tik 6ra profe-
sionalak eta zaletuak bildu dira, ikasta-
ro, emanaldi eta aurkezpen saio desber-
dinen inguruan. Ekimen honekin, eta
jada ospatu diren Kale Antzerki eguna-
ren bi edizioekin, arte eszenikoen erre-
ferentzia guneetako batean bihurtzen
ari da herria.



ANDER LIPUSEK IKASTAROA ESKAINI ZUEN TOPA ESENIKAN.

Antzerkigileak eta zaleak emanaldie-
tan bildu izan ohi dira, baina oholtza
batek bereiztu izan dituzte elkarrengan-
dik. Horma hori gainditu dute, igaro
den astean ospatu zen Topa Eszenikaren
estreinako edizioarekin. Helburua,
elkartu, ezagutu, topo eta topa egitea
omen zen eta lortu dute. Irailaren 3tik
5era esperientziak edota iritziak elkar-
trukatu eta arte eszenikoei lotuta antola-
tu ziren ikastaroetan, batzaz beste 35-40
lagunek parte hartu zuten.

Ikasle kopuru polita, kuxkuxero gutxi

Kale Antzerki Egunean gertatu beza-
la, Udalak babestu eta Txerriki zein
Artedramak antolatu duten Topa
Eszenikak arte eszenikoei lotutako ema-
naldiak eskaintzeko toki berri gehiago
ezagutzea ahalbidetu du. Kultur etxeaz
gain, Udarregi ikastola edota Artzabal.
Nahiz antolatzaileen esanetan, "Sutegi
zoragarria izan den tailer hauetarako".

Ikastaroez gain, antzerkigintzaren his-
toriari buruzko hitzaldia izan zen. Borja
Ruizek "Aktorea XX.mendea: teknika
estetikaren bila" liburua aurkeztu zuen.

Antzezlan pieza laburrez gozatzeko
aukera ere izan zen, Ixabel Agirresarobe
helduentzako ipuinak kontatzen aritu
zen, Jon Urraza bakarriketa barrega-
rriekin hurbildu zen Topa Eszenikara,
eta azkenik "Herioa eta dontzeila" lana
eskenaratu zuten hiru aktore ezagunek;
Itziar Ituñok, Ramon Agirrek eta Asier
Sotak.

Antolatzaileen esanetan, hutsuneren
bat aipatzekotan, kuriositatearena aipa-
tzen dute, ekimenean parte hartu dute-
nez gain, gutxi izan direlako antolatu
diren ekintza batzuetara hurbildu diren
herritarrak. Horregatik, Txerrikikoen
hitzetan, Topa Eszenikaren bigarren
edizioa ospatzen bada, "jakin minagatik
etor daitezela. Kuriosoak izan daitezela".
Ez bakarrik igaro den astean ospatu
zen ekimenean, baita oro har, herrian
alor honetako ekitaldiak antolatzen
direnean ere. Antzerkigintzara hurbil-
tzeko gonbita luzatzen dute. "Pixkanaka
bada ere, anima daitezela", aipatzen du
Tellok. Antolatzaileek eskerrak eman
nahi dizkiete, ekimena antolatzeko bere
laguntza eskaini dutenei.

"Oso ondo egon da"

Sorkuntza-dantzari, gorputz
adierazpenari edota antzezpena-
ri buruzko ikasgai bat baino gehiago
jaso dituzte parte hartzaileek. "Oso
ondo egon da dena. Asko ikasi dugu,
giro oso ona zegoen eta lagunak egi-
teko aukera izan dugu", adierazi du
Txerriki antzerki taldeko kide
Garbiñe Astiazaranek. Hain zuzen,
adin tarte eta Euskal Herriko txoko
desberdinetako antzerkigile eta zale-
tuak gerturatu dira Topa Eszenikara.
Egunotan, euren presentzia nabari
zen herrian.

Astiazaranentzat, Txerrikiko gaine-
ko kideentzat bezala, herrian antzerki
taldea osatu zenetik bilgune gisa hala-
ko ekimenetan parte hartzeko lehen
aukera eskaini die Topa Eszenikak.
Eta emaitzarekin gustura dira.
"Ikastaroak maila handikoak izan
dira. Lehen edizioa izateko oso pozik,
oso gustura gaude", adierazi du Alex
Tellok.

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 • 659602789

ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 USURBIL • 943 370 344

“Hitzen lihoa iruten” ikuskizunean, bertsoak, musikak eta kantuak bat egingo dute

Nafartarrak kultur taldeak “Hitzen lihoa iruten” jaialdia antolatu du. Irailaren 19an Sutegin ikus ahal izango dugun ikuskizunean, bat egingo dute Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariek, Juan Mari Beltran musikariaren taldeak eta Xiberuko kantariak. Sarrerak salgai daude Txiribogan, 8 eurotan.

“Euskal Herrian egiten den kultura-
ren ispilu izan nahi du eta era berean
beraien uztarketa ere bai.

Nahasketaren bidez sor daitekeen
emaitza nolakoa izango den ikusi nahi
dugu”, hala dio Nafartarrak taldeak
bidali digun oharrak. Hiru formato
ezberdin horien emaitza ona izango
den esperantza dute.

Sarrerak salgai

Bi orduko iraupena izango du eta
sarrerak, aldezturik erosita, 8 euro-
tan jarri dira salgai (Usurbilgo
Txiriboga tabernan, Lasarteko Jalgin
eta Orioko Kolon Txikin). Egunean
bertan erosiz gero, 10 euro.



IRAILAREN 19AN SUTEGIN
IGOR ELORTZA ETA UNAI ITURRIAGA,
JUAN MARI BELTRANEN TALDEA ETA
XIBERUKO KANTARIAK.

Mendeku itXuak Aulestian emango duen kontzerturako busa antolatu da

San Praixkutan, Santiotan eta
Atxegaldan aritu dira zuzenean.
Baita beste herri askotan ere. Eta dato-
zen asteetan ere, jaialdi gehiagotan ira-
garrita daude Mendeku itXua taldeko-
ak. Irailaren 18an, esate baterako, SA
eta Deskontrol taldeekin arituko dira
Aulestian (Bizkaia).

Kontzertura joateko autobusa anto-
latu da Usurbilen. Arratsaldeko
18:00etan atera eta goizeko 6:00etan
buelatuko da. Irrati tabernan jarri
dituzte izena emateko orriak. Prezioa,



MENDEKU ITXUA, ATXEGALDEKO
FESTETAN. AULESTIAN SA ETA
DESKONTROL TALDEEKIN ARITUKO DIRA.

15 euro. Izena emateko epea irailaren
15ean amaituko da.

Marisa Alejandro Palenciako espetxera eraman dute

Marisa Alejandro espetxez
Maldatu zuten abuztuaren
16an. Batasunako kide izateagatik
atxilotu eta espetxeratu zuten usur-
bildarra. Usurbildik 304 kilometro-
ra dago Palenciako espetxea. Orain
hau da bere helbidea:

Marisa Alejandro Gordaliza
Centro Penitenciario La Moraleja
Mód. 14 - Ctra. P-120
34210 DUEÑAS (Palencia)

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Enrique Alonso

ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA

BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

☎ 659 675 283

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta
tximinien azterketa

Datorren astean, Baxurde Krossa

Iazko harreraren ostean, Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi taldeko kideek bigarrenaz lasterketa antolatu dute datorren irailaren 20rako. Kaxkoa, Santuenea, Zubieta edota Kalezar lotuko dituen 10,5 kilometrotako ibilbidea osatu beharko dute lasterkariak, goizeko 10:30etik aurrera. Izen ematea zabaldu dute, www.herrikrossa.com web orrialdean.

Azken entrenamendu saioak burutzeko astia besterik ez dute Baxurde Krossean parte hartzeko asmoa duten kirolariak. Astebete pasatxo besterik ez da geratzen, estreinaldi jendetsua izan zuen probaren bigarren edizioa ospatzeko.

Izen-ematea zabalik

Datorren irailaren 20an, goizeko 10:30ean finkatu da lasterketa hasteko hitzordua. Ibilbidea iazko bera izango da. Lasterkariak Mikel Laboa plaza paretik irten eta bertan, frontoi atzean kokatuko da helmuga.

Lasterkarien erreferentziako www.herrikrossa.com web orrialdean



AURTENGOA BIGARREN EDIZIOA
IZANGO DA. ARGAZKIAN, IAZKO
IRABAZLEETAKO BATZUK.

proban parte hartzeko izena eman liteke jada. 7 euro ordaindu behar dira aldez aurretik, eta kiroldegira hurbilduz ere egin daiteke izen-ematea.

Baita lasterketa egunean ere, baina izen-ematea, egunean bertan, 10 eurokoa izango da.

Informazio gehiago 661 258 977 telefono zenbakian edota helbide elektronikoan honetan: ikarregi@yahoo.es

Futbol Eskola

Usurbil FTK Futbol Eskola martxan jartzeko asmoa du. Astero ordubeteko saioak egingo dira eta hila-betean behin partidak jokatzeko aukera izango da.

“Eskola Kirolaren egituratik kanpo kokatzen dira Futbol Eskolak; hala ere, Eskola Kiroleko ordutegi ezberdinak ahal den neurrian errespetatzen saiatu behar dugu. Horregatik, hasiera batean eta izen-ematearen kopurua ezagutu arte, entrenamendu saioak honela banatuko litateke:

-1998 eta 1999 urteetan jaiotakoak; ostegunetan, 17:30etik 19:00etara.

-2000 eta 2001 urteetan jaiotakoak; ostiraletan, 17:30etik 19:00etara.

Futbol Eskolak 150 euroko kuota bat izango du eta aldi batean, bitan edo hiru zatitan ordaindu daiteke. Kuota honen barnean, saioa bera, entrenatzaileak, materiala eta arropa. Horretaz gain, Realeko instalakuntzetara bisita bat egingo da monitoreekin, entrenamendu bat ikusi eta Realaren partidaren batera joateko aukera ere izango da. **Izen ematea, Haranen irailaren 9tik 18ra** (aste-buruetan izan ezik); arratsaldeaz, 18:30etik 20:00etara. Informazio gehiago Haranen edo telefonoz: 943369515.

Aginagan, Paleta Goma Txapelketa jokoan

Pasa den astean Aginagako Paleta Goma Txapelketa hasi zen. 30 izan dira izena eman duten bikoteak:

M. Galarraga-Aritz Urdanpilleta
Igor Alkorta-Eneko Arregi
Unai Lataillade-Iban Maritxalar
Xabier Santxo-Iban Arruti
Unai Loidi-Haritz Harreguy
Haritz Zubiaur-Enrike Huizi

Aritz Aranburu-Josu Ostolaza
Imanol Esnaola-Xabier Errasti
Jon Olaizola-Josu Arruti
Labaian aita semeak

Aginagako pilotalekuan

Lehen jardunaldia aurreko ostegunetan jokatu zen. Bigarren jardunaldia ostegun honetan, irailak 10, arratsaldeko 18:00etan.

Hirugarren eta azken jardunaldia datorren astean jokatu da, irailak 17 osteguna, arratsaldeko 18:00etan.

Finala, San Praixkutan

Lau bikote onenak finalerdietarako sailkatuko dira. Irailaren 24an osteguna, arratsaldeko 19:00etan.

Finala berriz San Praixkutan izango da, urriaren 1ean osteguna.

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ALIPROX

Kale Nagusia 10
© 943 361 182
USURBIL

Hasi da Endika Abril errebote txapelketa

Iaz baino parte hartze handiagoarekin hastekoa zen abuztuaren 23an, XLVI. Endika Abril Errebote Txapelketa. Baina taldeen arteko gaizki-ulertuak tarteko, partida batzuk atzeratu egin dituzte. Zubietan, Villabonan eta Oiartzunen jokatu dira txapelketako partidak. Parte hartzaileak, Gipuzkoako eta Lapurdiko launa talde eta Zuberoako beste bat. Oker gehiagorik ez bada, urriko lehen igandean ezagutuko ditugu txapeldunen izen abizenak.

Bederatzi lehiakide ari dira nor baino nor. Lau A multzoan; Luzaz Gazte, Kapito Harri, Oiarpe eta Zubietan. Gainerako bostak B multzoan; Behar Zana, Zubietan 1, Hardoytarrak, Atharraztarrak eta Kanboarrak. Neurketa guztiak, Villabona, Oiartzun eta Zubietako plazetan jokatu dira.

Lehen fasean izan dira gorabehera batzuk eta partida batzuk atzeratu egin



ZUBIETAK BI TALDE IZANGO DITU AURTENGO TXAPELKETAN.

dira. Baina hasiera batean, irailaren 27an jokatuko lirateke finalerdiak. Eta finala, urriaren hasieran.

Igande honetan, bi partida hauek iragarrita daude Zubietan:

Irailak 13, igandea

09:30 Zubietan 2 - Luzaz Gazte, Zubietan.

11:00 Zubietan 1 - Kanboarrak, Zubietan.

Eskuz binakako txapelketa Aginagan

Urrian izaten dira Aginagako festak. Baina jaiak iritsi bitartean, Esku Pilota Txapelketako kanporaketak jokatu dira Aginagako frontoian, astearte, asteazken eta ostiraletan. Abuztuko azken astean jokatu ziren lehen partidak.

Bi talde osatu dira aurtengo txapelketan. Bi taldeetako onenak urriaren 2an egingo den finalerako sailkatuko dira. Hauek dira partehartzaileak:

A TALDEA

Imanol Esnaola - Elola
Domínguez - Zinkunegi

Portu - Txapartegi
X. Santxo - Landa

B TALDEA

Errasti - Katalina
J. Santxo - Urruzola
Lertxundi - Aranalde
Aitor Aranburu - Olaizola
Huizi - Ostolaza

Talde bakoitzetik bi sailkatuko dira eta euren artean final-erdiak jokatu dira.

Urriaren 2an ezagutuko ditugu eskuz binakako txapelketako irabazleak.

Zilarra

Oiana Blancorentzat

Rotterdam (Holanda)
Bburutu den Munduko Judo Txapelketan Usurbilgo Judo Kluba ez da esku hutsik etxeratu. Oiana Blancok zilarrezko domina eskuratu zuen 48 kiloko emakumeen mailan.

Denboraldia luzea izan da Oianarentzat. Baina egindako ahalginak bere emaitza izan du. Oriokoak munduko txapeldunorde postua eskuratu du.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA


ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

Autobus Orduetia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
06.55	>>	07.15	07.25	07.35	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.10	>>	08.35	08.45		07.45	07.55	08.05	>>	08.30
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.10	09.30	09.35	09.45		08.45	08.55	09.05	>>	09.30
09.40	>>	10.05	10.15	10.25		09.30	09.40	09.45	10.10
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25		10.30	10.40	10.45	11.10
12.10	12.30	12.35	12.45		10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.10	13.30	13.35	13.45		12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25		13.30	13.40	13.45	14.10
14.10	14.30	14.35	14.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25		14.30	14.40	14.45	15.10
15.10	15.30	15.35	15.45		14.45	14.55	15.05	>>	15.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25		15.30	15.40	15.45	16.10
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
17.40	>>	18.05	18.15	18.25		16.30	16.40	16.45	17.10
18.10	18.30	18.35	18.45		16.45	16.55	17.05	>>	17.30
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	17.45	17.55	18.05	>>	18.30
19.10	19.30	19.35	19.45		18.45	18.55	19.05	>>	19.30
19.40	>>	20.05	20.15	20.25		19.30	19.40	19.45	20.10
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	19.45	19.55	20.05	>>	20.30
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	20.45	20.55	21.05	21.10	21.30
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05	21.15	21.25	21.35	21.40	22.00

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00*	08.20*	08.25*	08.35*	08.45*	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00*	>>	01.25*	01.35*	01.45*
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00*	>>	05.25*	05.35*	05.45*
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15*	00.25*	00.35*	>>	01.00*
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15*	02.25*	02.35*	>>	03.00*
03.15*	03.25*	03.35*	>>	04.00*
04.15*	04.25*	04.35*	>>	05.00*
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

Donostia: 09/06/22-09/09/14 Usurbil: 09/06/22-09/09/14 Zarautz: 09/06/22-09/09/14



ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL

Irteera Usurbil	Irteera Astigarraga
ASTEHEHEN-OSTIRALERA	ASTEHEHEN-OSTIRALERA
07:15- 7:45- 08:15- 08:45	07:00- 7:30- 08:00- 08:30
09:15- 10:15- 11:15- 12:15	09:00- 09:30- 10:30- 11:30
12:45- 13:15- 13:45- 14:15	12:30- 13:00- 13:30- 14:00
14:45- 15:15- 16:15- 17:15	14:30- 15:00- 15:30- 16:30
18:15- 18:45- 19:15- 19:45	17:30- 18:30- 19:00- 19:30
20:15- 20:45- 21:15- 21:45	20:00- 20:30- 21:00- 21:30
22:15	22:00
IGANDE-JAIEGUNETAN	IGANDE-JAIEGUNETAN
15:15- 16:15- 17:15- 18:15	15:00- 16:00- 17:00- 18:00
19:15- 20:15- 21:15- 22:15	19:00- 20:00- 21:00- 22:00

URNIETA-LASARTE-ZUBIETA-USURBIL

ASTEHEHENETIK-OSTIRALERA				
Usurbil → Urnieta				
USURBIL	SANTUENEA	ZUBIETA	LASARTE	URNIETA
07:15	07:20	07:25	07:30	07:45
08:15	08:20	08:25	08:30	
09:15	09:20	09:25	09:30	09:45
12:30	12:35	12:40	12:45	13:00
13:30	13:35	13:40	13:45	
14:30	14:35	14:40	14:45	15:00
18:30	18:35	18:40	18:45	19:00
19:30	19:35	19:40	19:45	
20:30	20:35	20:40	20:45	21:00

ASTEHEHENETIK-OSTIRALERA				
Urnieta → Usurbil				
URNIETA	LASARTE	ZUBIETA	SANTUENEA	USURBIL
07:45	07:00 08:00	07:05 08:05	07:10 08:10	07:15 08:15
09:45	09:00 10:00	09:05	09:10	09:15
13:00	12:15 13:15	12:20 13:20	12:25 13:25	12:30 13:30
15:00	14:15 15:15	14:20	14:25	14:30
19:00	18:15 19:15	18:20 19:20	18:25 19:25	18:30 19:30
21:00	20:15 21:15	20:20	20:25	20:30

TSST autobusak ZUBIETA • DONOSTIA

LANEGUNETAN
Zubieta-Donostia: 07:55(TV) 08:30(TV) 13:15(TV) 14:30(TV) 19:15(TV)
Donostia-Zubieta: 07:15(TV) 08:00(TV) 12:45(TV) 13:45(TV) 18:45(TV)
LANEGUNETAN
Zubieta-Donostia: 08:15(TV) 12:45(TV) 15:15(TV) 21:35(TV)
Donostia-Zubieta: 07:45(TV) 12:45(TV) 14:30(TV) 21:00(TV)
JAIEGUNETAN
Zubieta-Donostia: 11:25(TV) 13:30(TV) 15:00(TV) 21:35(TV)
Donostia-Zubieta: 11:00(TV) 13:00(TV) 15:00(TV) 21:00(TV)

TSST autobusak Zubieta • Donostia

www.tsst.info 943 36 17 41

BUS-TAXI	Astelehenetik Ostiralera
1	Usurbil kaskoa
2	Kalea
3	Iartza
4	Ibarrola
5	Aratzain
6	Yarritan
7	Urdaita
8	Aginaga
9	Txokoa
10	Urdaita
11	Santuena
12	Usurbil kaskoa
13	Santuena
14	Amiri
15	Etxeina ingurua
16	Alkortaia
17	Zubieta
18	Txokoa
19	Usurbil kaskoa

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	06.47	06.01	06.11	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.31	06.41	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.01	07.11	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.31	07.41	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.01	08.11	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.31	08.41	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.01	09.11	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.01	10.11	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.01	11.11	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.01	12.11	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.31	12.41	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.01	13.11	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.31	13.41	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.01	14.11	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	14.17	14.31	14.41	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.01	15.11	15.20
15.38	15.45	15.54	16.09	15.17	15.31	15.41	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.01	16.11	16.20
16.38	16.45	16.54	17.09	16.17	16.31	16.41	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.01	17.11	17.20
17.38	17.45	17.54	18.09	17.17	17.31	17.41	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.01	18.11	18.20
18.38	18.45	18.54	19.09	18.17	18.31	18.41	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.01	19.11	19.20
19.38	19.45	19.54	20.09	19.17	19.31	19.41	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.01	20.11	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.01	21.11	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.01	22.11	22.20
22.40	22.46	22.55	23.10				

Donostia: 09/06/22-09/09/14 Usurbil: 09/06/22-09/09/14 Zarautz: 09/06/22-09/09/14

Bezeroen arretarako bulegoa 902 54 32 10 www.euskotren.es atcliente@euskotren.es

Agenda !

Irailak 11 ostirala

- Porrotx eta Ximon, Aginagako frontoian. 18:00etan, sarrera doan.

Irailak 19 larunbata

- "Hitzen lihoa iruten", ikuskizuna. Juan Mari Beltranen taldea, Zuberoako boskote gaztea, Unai Iturriaga eta Igor Elortza. Sutegin, 19:00etan.

Irailak 18-20

- Santueneko festak.

Eguneko goardiako farmaziak

Irailak 10, osteguna

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Irailak 11, ostirala

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 12, larunbata

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Irailak 13, igandea

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Irailak 14, astelehena

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Irailak 15, asteartea

Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Irailak 16, asteazkena

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 17, osteguna

Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Irailak 18, ostirala

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Irailak 19, larunbata

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Irailak 20, igandea

De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Castilla Farmazia (22:00-09:00), Urbieta
kalea, 7 Hernani 943 552 941

*Usurbilen, soilik eguerdina arte

80 urte bete

dituztenen omenezko bazkaria

Gure Pakea elkarteko kideek aurten 80 urte bete dituztenak zoriondu nahi dituzte. Haien omenez, bazkari bat antolatu dute. Bazkaria urriaren 4an izango da Atxega jauregian. Lehenago meza izango da eguerdiko 11:30ean.



URRIAREN 4AN OMENDUKO DITUZTE
80 URTE BETE DITUZTEN HERRITARRAK.

Bazkarira joan nahi duenak, bai omenduen sendikoei, lagunak nola Gure Pakeako kideei, irailaren 25a baino lehen erosi behar dute bazkari-rako txartela. Gure Pakeak Artzabalen duen egoitzan eskura daiteke txartela, 35 euro ordaintzarekin batera. Edo

Euskadiko Kutxan, kontu honetan ingresoa eginez:

3035 0140 31 1401018416.

Gogoan izan txartela erosteko azken eguna irailaren 25a izango dela.

Irailean, goizez irekiko da KzGunea

Abuztuan itxita izan da KzGunea abaina irailaren 1etik zabalik daude KzGuneako ateak. Hilabete honetan, goizez izango da irekita, 9:00etatik 13:00era.

Irailak 10 osteguna

Wikipedia ikastaroa
Ordutegia: 9:00-11:00.

Irailak 15 asteartea

Sare sozialak (Facebook)
Ordutegia: 9:00-11:00.

Irailak 17 osteguna

Youtube. Ordutegia: 9:00-11:00.

Ordutegia: 9:00-11:00.

Helbidea: Kale Nagusia, 37

Telefonoa: 943 36 14 12.

Yoga ikastaroak

Zubietan eta Santuenean

Pasa den asteazkenean hasi zen yoga ikastaroa Zubietan. Asteazkenean, yoga-zaleek hitzordua dute, 19:15ean Kaxkapen, frontoi berriaren ondoko lokalean.

Santuenean, aldiz, aste gutxi barru helduei zuzendutako ikastaroari ekingo zaio. Parte hartzeko asmoa dutenek, bi ordutegi aukeran izango dituzte: goizez, 9:30-11:00 artean eta iluntzetan, 20:30-22:00 artean.

Haurdun daudenentzat ere bai

Bestalde, asteazkenean ere, 19:30etik 21:00etara talde bat osatu nahi da Santuenean; haurrekin, haur eta gurasoekin edota haurdun dauden emakumezkoekin. Informazio gehiago: 695 774 951 (Mari Karmen) edo 670 090 262 (Irene).

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

URDAINTZI S.L.
broikuntza

943 367 264
649 435 475
649 435 476

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

ETXEBIZITZA

- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- Etxe bat alokatzen dugu Usurbilen. Berritua eta amueblatua. Abala eskatzen da. 678815247
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetarako egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
- Gela argitsu bat alokairuan hartuko nuke. Tlf: 656 799 481.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Motorra salgai. Peugeot Speedfight 3, 50 c.c. 2009ko maiatzeko. Estrenatu gabe eta matrikulatu gabe. 1.800 euro. 655724125.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. Interesatuak deitu 943361265.
- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bersioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot marka

ko telefonorako esku-librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.

- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristixo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 943 368 574.
- Emakumea interna moduan lan egiteko eskaintzen da. 608 098 941.
- Neska arduratsua etxeko lanak, haurrak zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. 699207750
- Zerbitzari, sukalderi laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendingi edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edo zein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, intera moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota

plantxan aritzeko: 630 438 571.

- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Poltsa bat galdu da haurren arropa barruan zuela, Laurok kanpoan. Topatu baduzu, deitu mesedez: 943 373 117.
- Informatikoa naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero, deitu: Oskar: 609 46 87 59 / oskarsm@hotmail.com
- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. 656774127.
- Frantseseko klaseak ematen ditut Usurbilen. Astelehena eta asteartetan. Klaseak maiatzean hasita daude baina oraindik plazak daude. Informazio gehiago Laurok liburutendan.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Aupa bi kalezartarrok! Beste urte bat gainean duzue eta oraindik ezin elkarrekin ospatu herriko giroan. Ea laister aukera hori sortzen dugun txanpain pixka bat hartzeko. Gora zuek!



Zorionak Euxebio eta osaba Joxe Mari! Irailaren 12an biok urteak beteko dituzue. Ondo ondo pasa eta belarria prestatu. Eñaut, Ane eta familia osoaren partez.



Zorionak eta osaba Joxe Mari! Irailaren 12an biok urteak beteko dituzue. Ondo ondo pasa eta belarria prestatu. Eñaut, Ane eta familia osoaren partez.



Zorionak Ibai eta Ekain! Ibaik uztailaren 28an 3 urte eta Ekainek irailaren 8an 8 urte bete dituzte. Muxu handi

handi bat aitaxo, amatxo eta Troxkiren partetik. Orain arte bezalakok izaten segi.

HILDAKOAK

Ramon Zubeldia Artano, abuztuaren 9an, 87 urte



Antonio Arregi Aizpurua Abuztuaren 19an, 86 urte



Manuel Rubio Crespo abuztuaren 18an, 86 urte



Maria Muguruza Arozena Irailaren 2an, 92 urte





bulegorako altzariak eta hornidura paper dendarako artikuluak

Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892 · Faxa: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com · www.manpel.com



*Fruta
Barazkiak
Fruta eta barazki ekologikoak
Gure baratzeko produktuak
Kontserbak
Baserriko esnea....*

Irekiera: irailak 10, arratsaldeko 17etan

frutadenda



Ordutegia: 8:30tik 13:30ra eta 17:00etatik 20:00tara, Larunbata: 8:30tik 14:00tara Barrenkale 8, (Udaletxe ondoan) 943 111 977 f.txalaka@gmail.com



...garena ikasteko!

ikasi euskara
eman izena aek-n

Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

www.aek.org

usurbil

ETUMETA EUSKALTEGIA

Kale Nagusia, 45 behe. 20170 USURBIL

943 37 20 01

Udalaren diru laguntzaz

PLAZA MUGATUAK

